



AURRE-OHARRAK

1.- Euskal irakaskuntza aipatzean, lehenik, osoz edo partez euskaraz emandako irakaskuntza esan nahi da, hots, euskaraz nahiz euskaraz eta erdar(et)az ematen dena.

Txosten honetan, bestalde, Euskal Autonomia Elkartearen osatzen duten Hiru Probintziak hartzen dira kontuan.

2.- Azken hamazazpi urteak ditu azterkizun txosten honek. Jakintzat ematen dira, beraz, euskara irakaskuntzan sartzeko lehen saio-ahaleginetatik hasi eta 1979-80 arteko gorabeherak. Azterketa zehatza eta sakona du egina, nahi lukeenarentzat, Mikel Zalbidek:

3.- Hasi orduko mahaigaineratuko dut, duen esanahiagatik, txosten honen ondorioz nabarmenena: azken 100 urteetan agian, eta inongo ezpairik gabe azken 15etan, irakaskuntza izan da euskaldunon artean euskara biziberritu eta geroratze asmotan gehien aintzat hartutako esparrua, ahalegin gehien egindako alorra eta esperantza gehien jarritako eremua. Euskaldungoak eta euskaltzaleek irakaskuntzan ikusi izan dute, inon ikustekotan, euskararen iraupenaren giltzarria eta Euskal Herriaren etorkizuna; alor horretan saiatu dira, herri-ekimen nahiz erakundeen jardunaren bidez, behin eta berriz, eta alor horretan eraldi da, bereziki azken 15 urteetan, beste edozeinetan baino diru eta esfortzu gehiago. Eskola izan da, beraz, gure hizkuntza-politikaren itu nagusia, gizartetik nahiz erakundeetatik.





AZKEN URTEETAKO BILAKAERA

4.- Gaur eguneko euskal hezkuntza-sistemaren oinarriak, Hiru Probintzietan dagokienez, 1979an aurkitzen dira: Estatuko Gobernuaren apirilaren 20ko 1049/79 Errege-Dekretuak eta hori garatzeko 1979ko abuztuaren 3ko Aginduak eman zioten sarbidea euskarari irakas-sisteman, Autonomia Estatutua berreskuratu baino lehenago, beraz.

Ondoren, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak, bere 6. atalean dioenez, euskara, Euskal herriaren berezko hizkuntza, gaztelaniarekin batean hizkuntza ofiziala izango da Euskadin. Bertako biztanle guztiek dute hizkuntza bata zein bestea jakin eta erabiltzeko eskubidea.

Hezkuntza-alorrari dagokionez, zehazki, Estatutuaren 16. atalak aitortzen dio EAERI aginpidea, bere luze-zabalean, maila denetan eta irakaspide nahiz espezialitate guztietan, muga bakarrak Konstituzioaren 27. atala eta bere garapenerako Lege Organikoak, 149.1.30 atalaren bidez Estatuari gordetako aginpideak eta horiek guztiak ongi bete daitezzen zaintzeko goi-ikuskaritza izaki.

5.- Autonomia aldiko hezkuntza-antolakerari dagokionez, azaroaren 20ko 10/88 Euskara Legea aipatu behar da lehendabizi. Hiru irizpide nagusi aurkitu daitezke bertan: irakaskuntza euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen zaie ikasle guztiei; beren gurasoei aitortzen zaie aukera hori egiteko eskubidea eta, azkenik baina ez azken, derrigorrezko irakasaldiaren amaieran hizkuntza biak menderatzea ezartzen dio helburu gisa eskola-sistemari.





6.- Jaurlaritzak, irizpide horiek betetzeko eta helburu horiek bermatzeko emandako araurik garrantzikoena uztailaren 11ko 138/83 Elebitasun Dekretua eta Hezkuntza sailburuaren abuztuaren 1eko Agindua dira. Arau horiek bai euskara eta bai gaztelania ikastetxe guztietan derrigorrez irakatsi beharreko irakasgai izango direla agindu zuten eta baita aurrerantzean erreferentzi puntu eta tresna nagusi izango ziren hiru irakasteredu elebidunak finkatu eta ezarri ere.

7.- Hiru irakastereduak, izan ere, ikusmolde psikopedagogiko bereziaz zehaztu ziren. Garai hartako zenbait testu aztertzea nahiko da ohartzeko nolako irizpidez ezarri ziren hiru ereduok. Euskal Herrian aurreko hamarkadetan euskarazko irakaskuntzaren aldeko ekinbide eta proposamenetan nagusi zen ama-hizkuntzaren irizpidea, hots, ama-hizkuntzan (lehen hizkuntzan, alegia) hasi behar zuela haurrak ikasketa-bidea, arian-arian (eta bazen eztabaidarik erritmo eta adin egokiaz) bigarren hizkuntza sartuz.

Horrela, bada, D ereduak haur euskaldunentzako bide zen egokia, etxetik euskaldun huts zirenentzat; B ereduak, bere aldetik, euskararekin eta erdararekin ukipenik izandakoentzat, hau da, etxean zein etxe-inguruetan bi hizkuntzak ezagututako haurrentzat omen zen egokia; A ereduak, berriz, ez etxe ez auzo euskararik batere (edo apenas) entzundakoak euskararengana hurbiltzeko jotzen zen egokitzat.





8.- Gauza jakina da honez gero ez dela hori izan hiru ereduaren ezarpen-eredua. Aitzitik, gurasoek gero eta eredu "euskaldunagoak" edota "euskalduntzen trinkoagoak" eskatu dituzte, beren seme-alaben elebitasuna ziurragoa eta osatuagoa izan dadin helburuaz. Horrek baldintzatu du, neurri handienez, Hiru Probintzietako irakas-sistemaren bilakabidea, Hezkuntza-administrazio batzuen ala besteen ardurapean joera nagusi hori ez baita aldatu.

Horrela, bada, bereiz eta loturarik gabe gertatzen dira etxeko hizkuntza eta eskola-hizkuntza gero eta proportzio handiagoan, hots, zehatzago, gero eta haur erdaldun gehiagok jasotzen du irakaskuntza euskaraz, osoz edo partez.

Ikus taula hauek:

	IKASTURTEA		
	1983-84	1988-89	1993-94
A	58	56	40
B	11	21	28
D	17	22	31





ADIN-TALDEA	AMA-HIZKUNTZA, EHUNEKOTAN		
	EUSKARA	EUSKERA ETA GAZTELANIA	GAZTELANIA
2-4	19	9	72
5-9	18	7	74
10-14	17	6	77

Bi taulak konparatuz begi bistan dago, nahiz eta %18 inguru bakarrik (norberak erroldan egindako aitortpenen arabera) etxetik euskalduna izan, **D** eredura joaten da ikasle guztien %31 ingurua. Era berean, nahiz eta ikasle guztien %72k gaztelania ama-hizkuntza bakartzat izan, %40 inguruk soilik hartzen ditu eskolak **A** ereduari. Datu hauek are deigarriagoak dira azken urteotako joerari erreparatuz gero, hiru eta sei urte bitarteko haurren eskolatzea aztertuz. Maila honetan %26 bakarrik joaten da **A** eredura (**B** eredura %32 eta **D** eredura %41 joaten den bitartean). Alde nabarmena dago, beraz, haurrek etxean ikasten dutenetik eskolan jasotzen dutenera. Bestela esanda, gurasoen aldetik jarrera argia dago: beren seme-alabei etxean eman ezin izan dietena eskolak irakastea nahi dute. Jarrera honek zera adierazten





du: gurasoek eskolarekiko konfidantza sendoa dutela, horrela eremu urriko hizkuntza berpizteko eta beren haurrak elebidun aktibo bihurtzeko. Noraino betetzen du edo bete lezake eskolak eginkizun hori? Horixe da, hain zuzen, hezkuntza-sistemaren ebaluazioari eskatzen zaion erantzuna.

9.- Euskal Herriko irakas-sistema anitza eta askotarikoa da: hiru hezkuntza-administrazio (EAEko HUIS, Nafarroako Hezkuntza Departamentua eta Iparraldean Frantziako Education Nationale), hiruna eskola-sare (publiko, pribatu eta ikastola Nafarroan eta EAEn, 1993era arte behintzat, publiko, katoliko eta ikastola Iparraldean), hiru irakasteredu (EAEn eta Nafarroan). Horretaz gain, eraldatze-bidean dago azken urteotan, Hegoaldean bereziki, hezkuntzaren erreformaren bidez: eskolatzea 16 urtera arte luzatzea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bitartez, eta irakaspideen aldaberrikuntza sakona, gelako ikasle-kopuruaren jaitsierarekin batera, dira eraldakuntza horren ezaugarri nagusiak.

10.- Erantsitako tauletan ikus daiteke hiru ereduon ezarpena eta bilakaera lurralde eta eskola-sare desberdinetan.

11.- Datu horietatik atera daitezkeen ondorio nagusiak azpimarratzen saiatuko naiz.

a) Lehenik eta behin, eskola-haur kopuruaren jaitsiera nabarmena: 406.778 haur ziren EAEn 1979-80 ikasturtean Eskolaurrean eta OHOn eta 205.276 dira 1996-97 ikasturtean HH, LH eta DBHkoak (2 urtekoak gabe). Ia erdira etorri da, beraz, 3 eta 13 urte arteko eskola-jendea 17 urteotan.



- b) Justu aldi berean irakas-sistema goitik behera aldaberritu da, nabarmen erdalduna zen eskolan euskarari gero eta leku zabal eta erosoagoa eginez: 1983-84 ikasturtean B eta D eredueta ikasten zuten Eskolaurre eta OHOKo ikasleak 106.871 ziren EAEko eskola guztietan, hots, %27,13; 1996-97 honetan, berriz, 146.953 dira adin beretan, %69,28 beraz.
- c) D ereduak izan du, guztietan, hazkunderik handiena. Hasiara batean (80. hamarkadan, adibidez) B eredua hazi bazen gehien, 90. hamarkadan D ereduak aurrea hartu dio eta gero eta zokoratuago du. A eredua, azkenik, urterik urtera ahulduz eta flakaturuz joan da, herri-ikastetxeetan bereziki eta Gipuzkoan berezikiago.
- d) Bilakabide honen joerak betibatekoak baldin badira ere lurralde eta eskola-sare guztietan, alde nabarmenak daude oraindik ere multzo desberdinen artean. A eredua indartsu da oraindik Araban eta eskola pribatuetan, Gipuzkoan desagertu delarik herri-ikastetxeetan eta eskola pribatuetan ere hondarrak besterik geratzen ez direlarik.
- e) Dena den, erreparatu beharko litzaioke eskola pribatuetako euskalduntze-mailari. Ikastetxe pribatuak dira, izan ere, A ereduko eskaintza ia bakarra Gipuzkoan, eta gogor eusten diete erdal irakaskuntzari Bizkai-Arabetakoek. Gizarte-zatiketa baten zantzuen aurrean egon gaitezken neurrian dira kezkarriak datu horiek.



e) Aipagarriena, agian, joera horien iraupena da, izan ere, eredu "trinkoen" hazkundeak jarraitu egiten du, bai herri-ikastetxeetan eta bai ikastetxe pribatuetan ere, gaur egun ere, urtez urteko edo zikloz zikloko datuek argi erakusten duten bezala:

LURRALDEA : E.A.E. SAREA : PUBLIKOA + PRIBATUA IKASTURTEA : 1996/1997
H.H. eta L.H.ko IKASLEAK

Eredua	Haur Hezkuntza			Lehen Hezkuntza				D.B.H.		GUZTIRA	
	Bigarren Zikloa			Lehen Zikloa		Bigarren Zikloa		Hirugarren Zikloa			Lehen Zikloa
	1	2	3	1	2	1	2	1	2		Zikloa
A	2958	3314	3588	4181	4642	5096	5760	6730	7804	20481	64554
%	18,55	20,54	22,37	25,70	27,74	28,90	31,44	34,38	37,09	43,30	
B	4811	4729	4834	4752	5023	5339	5560	5754	6139	10787	57728
%	30,17	29,31	30,13	29,21	30,01	30,28	30,35	29,39	29,17	22,81	
D.	8178	8089	7619	7337	7071	7195	7002	7091	7100	16030	82712
%	51,28	50,14	47,50	45,09	42,25	40,81	38,22	36,22	33,74	33,89	
GUZTIRA	15947	16132	16041	16270	16736	17630	18322	19575	21043	47298	204994



- f) Esan gabe doa, irakas-sistemaren euskalduntze sakon eta azkar horrek eragin izugarriak ekarri dizkio irakaslegoari, eskola-antolakuntzari, pedagogiari eta, orohar, eskola-mundu osoari.

Irakaslegoaren euskalduntzea

12.- Hiru irakastereduen bilakaera ikusi dugu. Bilakaera horri erantzuteko, irakasle-jendeak ahalegin azkar eta sendoa egin behar izan du azken hamasei urteetan, euskaraz irakasteko gai izatera iristeko, irakasle euskaldunak baitira, izan ere, euskal irakaskuntzaren baldintza eta muga-eragozpen larrienetako bat. Behar adina irakasle euskaldun eskuera izatea da, hitz gutxitan esanik, irakas-sistemaren euskalduntze-saioaren baldintzapenik nagusia.

Euskarazko irakaskuntza zabal-hedatzen hasi zeneko garaiko jakiniturri gutxi dago, pentsa daitekeenez. 60-70 hamarkadetako lehen ikastola haietako irakaslegoa euskalduna izan ohi zen, jakina; ez beti, ahatik, tituluduna. Pribatuetako irakaslegoa, gogoan izango duzue, ez zen euskaldunegia, ezta hizkuntzaz ere. Eskola "nazonaletan", aldiz, bakanka besterik ezin zitezkeen aurkitu irakasle euskaldunak.

1976-77 ikasturtean SIADECOK egindako inkesta batek ematen dizkigu herri-ikastetxeetako Eskolaurre eta OHOk irakaslegoaren hizkuntza-egoerari buruzko abiaburuko datuak.





(1.976.77 ikasturtea)

**E.A. eta O.H.O.
Euskaraz dakitenak**

	Guztira	Zenbat	%
Araba	884	20	2.2
Bizkaia	3809	140	3.8
Gipuzkoa	1927	154	8.0
Nafarroa	1664	70	4.2
Guztira	8284	384	4.6

in: Euskal Irakaskuntza:10 urte.

1980-84 epealdian, behin Eusko Jaurlaritzak hartu zuelarik Hiru Probintzietako irakaskuntzaren ardurara, bilakaera azkarra izan zuen egoera horrek: irakasle berri askotxo hartu zituen irakas-sistemak, Irakasle-Eskoletako lehen promozio euskaldunak ia oso-osorik beren artean. Neurri apalagoan, jadanik irakaskuntzan ziharduen irakasle-jendea euskaldundu eta alfabetatzeari ekin zitzaion. 1983an Hezkuntza Sailak berak egindako inkesta osatugabeak erakusten digu urte horietako lanaren emaitza:





(1983
 ikasturtea)

Irakasleak

**Irakasle
 erdaldunak**

**Euskalduntzen
 ari diren
 irakasleak**

**Irakasle
 euskaldunak**

Lurraldea	Mota	Zenbat	Zenbat	%	Zenbat	%	Zenbat	%
Araba	Denak	1250	975	78	125	10	150	12
Bizkaia	Denak	4429	2841	64	748	16	840	19
Gipuzkoa	Denak	2019	990	49	353	17	676	33
E.A.E.	Denak	7698	4806	62	1226	16	1666	22

in: Euskal Irakaskuntza; 10 urte

- a) 1976-77an %5era iristen ez ziren nola-halako irakasle euskaldunak %22 jotzen zuten 1983an (EAKo eta OHOKo 314 irakasletik 1666ra pasatu ziren)
- b) Horiez gain, beste 1226 irakasleko multzo bat (guztizkoaren %16a) euskalduntzen (edo alfa-betatzen) ari zen.
- c) Erdaldun jarraitzen zuten, beraz, irakasleen %62k.

Hizkuntza
 politika



1983ko uztailaren 11ko Elebitasun-Dekretuak ezarri zuen, EGA agiria euskara edo euskaraz irakasteko baldintza eta eskakizun. Handik aurrera, irakasle euskaldunak EGA lortzen ahalegindu ziren eta, baita, euskalduntze-bidean zirenak ere EGA hartu zuten helburu.

1985-86 ikasturteko datuak dira garai haietako lehen datu-bilduma osotua:

1985-86		Irakasleak		
EA + OHO		Guztira	Egadakunak	%
Araba	HI	1687	375	22,2
	IK	219	145	66,2
	lpr	526	34	6,4
	Guztira	2432	554	22,6
Bizkaia	HI	5258	1381	26,3
	IK	909	602	66,2
	lpr	2573	238	9,2
	Guztira	8740	2221	25,4
Gipuzkoa	HI	2364	868	36,7
	IK	1709	1424	83,3
	lpr	1624	334	20,5
	Guztira	5697	2626	45,7
E.A.E.	HI	9309	2624	28,2
	IK	2837	2171	76,52
	lpr	4723	606	12,83
	Guztira	16869	5401	32





Ikus daitekeenez, aurrerapena nabarmena zen ordurako: EA eta OHoko irakasleen %32 euskaldun zen jadanik, EGAdun, alegia. Alde nabarmenarekin, ordea, ikastoletako eta herri-ikastetxe eta pribatuetakoen artean eta herrialde desberdinetakoen artean.

Batxiler-Lanbide Heziketari dagokionez, 85-86ko datuek euskaraz irakasteko postua zutenak erakusten dizkigute.

(1.985-86 ikasturtea)

IRAKASLEAK

		Guztira	Euskarazko Irakas.	%
BBB	Publikoa	3065	711	23.2
	Ikastolak	222	135	60.8
	Pribatuak	1254	52	4.1
	Guztira	4541	898	19.8
L.H.	Publikoa	1566	310	19.8
	Ikastolak	5	4	80
	Pribatuak	1249	56	4.5
	Guztira	2820	370	13.1
GUZTIRA		7361	1,268	17.2

in: Euskal Irakaskuntza: 10 urte





Ikus daitekeenez, irakasleen %17,2 euskaraz irakasten ari zen 85-86 ikasturtean erdimailako irakasmailetan, baina ez ziren denak EGAdunak: gabarik ere bazen, baina baita EGAdunik ere erdaraz eskolak ematen ere. Ohartzekoa da, besteak beste, Lanbide Heziketaren euskalduntze-maila apala.

1988ko datuek beste aurrerapauso bat erakusten digute eta, areago, 1990ekoak. (Ikus Euskal Irakaskuntza; 10 urte).

Azkenik, hona hemen 1996-97 ikasturteko datuak. Datuok, noski, 1993ko martxoaren 9ko 47 Dekretuak ezarritako Hizkuntza-eskakizunen araberakoak dira. HE direlakoak 1992ko Eskola-Itunean adostu zituzten orduko Jaurlaritzako bi alderdiek eta, gogoan izango duzue, euskaraz irakasteko edota ikastetxeetako harremanak euskaraz izateko gaitzen bide dute. 47/93 Dekretuak, bestalde, irakasteredu bakoitzeko ikastetxeetan zenbat lanpostu HE1ekoak eta zenbat HE2koak izango ziren ere finkatu zuen, eta baita eskakizun horien derrigortasun-epeak ere.





EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUNEKO IRAKASLEGOA 1996-97

Hizkuntza
politika

	HERRI-IKASTETXE			IKASTETXE-PRIBATU			
		kopuru	PL2	%	kopuru	EGA	%
HE+LH	EAE	11502	7461	64	6674	3584	54
	Araba	1934	1026	53	804	352	49
	Bizkaia	6223	3807	61	3259	1390	43
	Gipuzkoa	3345	2628	78	2611	1842	71
BH	EAE	7120	3393	47	4266	1516	35
	Araba	898	341	37	865	197	22
	Bizkaia	3726	1558	41	1763	481	27
	Gipuzkoa	2496	1494	59	1638	838	51
Beste	EAE	222	56	25	1083	110	10
	Araba	35	7	20	105	9	9
	Bizkaia	152	35	23	399	28	7
	Gipuzkoa	35	14	40	579	73	13
Guztira	EAE	18844	10910	57	12023	5210	43
	Araba	2867	1374	47	1774	558	31
	Bizkaia	10101	5400	53	5421	1899	35
	Gipuzkoa	5876	4136	70	4828	2753	57





Hogei urtean egindako aldea nabarmena da: irakasle euskaldunak %5era ez iristetik, ia %60ra pasatu dira. Milaka irakasle, milaka orduren buruan ... eta milaka milioiren truke. Hasiera batean, 80. hamarkadan, haurrak ugariak ziren oraindik, aurreko hamarkadetako ugalkortasunaren ondorioz, eta irakasle euskaldunak hartzen zituen sistemak, gehien bat; laster samar hasi zen, ordea, ikasle kopurua jaisten, eta baita irakasle berrien beharra ere. Ondorioz, sistema barruko irakasleak euskalduntzeari eman zitzaion lehentasuna. Horixe da IRALE programaren helburua.

13.- IRALE programaren helburua Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan lanean diharduten irakasleak euskalduntzea eta alfabetzea da. Irakasle hauek euskaraz irakatsi ahal izateko HE2 maila egiaztatu behar dute herri-ikastetxeetan. Euskaraz irakatsi behar ez dutenek, aldiz, HE1 maila eskuratu behar dute. Ikastetxe pribatuetakoa goera ez da zeharo berdina, baina berdinduz doa.

Herri-ikastetxe eta ikastetxe pribatuetakoa irakasleentzat eraturik dago IRALE programa, eta baita Heziketa Berezikoko pertsonalarentzat ere. Hezkuntza Ordezkaritzetako eta herri-ikastetxeetako pertsonal ez irakasleei (PEI), berriz, HAEE-IVAPEk eskaintzen dizkie kasuan kasuko formazio-bideak.

Ikastaro-emankizun guztiak doan eskaintzen dira. Irizpide honen mugak, nolana ere, ikastaroaren aprobetxamenduaren arabera arautzen dira. Horrexegatik, ikasketariak gutxieneko baldintzak ongi beteko ez balitu, hurrengo ikastaroan erdia bakarrik ordainduko lioke IRALEk.

Programa honetan eskaintzen diren ikastaro-emankizunen artean, berriz, honako aukerak eskaintzen dira:





- a) Irakastorduz kanpora: Alde batetik, udan eta ikasturtean zehar eskaintzen diren ikastaroak aipatu behar dira. Ikastaro-mota hauek irakastorduz kanpora eskaintzen dira, eta edozein euskara-mailatako irakasleei zuzendurik daude: euskalduntze-ikastaroak, HE1erako ikastaroak, HE2rakoak, Oinarrizko alfabetatzea, Alfabetatze teknikoak, EGArako ikastaroa, sakontze-ikastaroa, metodologiari buruzkoa, bizkaiera lantzekoa, HE1erako ikastaro berezia eta HE2rako ikastaro berezia. Oro har, Hezkuntza Sailaz kanpoko erakunde eta ikasketa-elkarteen bidez mamitu ohi dira.

Irakastorduz kanpoko ikastaro-mota hauetan parte hartzeko aukera irakaslearen interesean oinarritzen da nagusiki.

- b) Irakastordu barnean: Bestetik, irakastordu barneko ikastaro-emankizunak dira aipatzekoak. Hauetan parte hartzeko irakasle-ikasketariak ez dute ikastaro-garaian klase-emankizunik, egun osoz edo partez euskara ikastera dedikatzen baitira. Neurri handi batean, IRALERen lau irakastegietan mamitzen dira ikastaro hauek.

Irakasle liberatu hauek ikasturte osoan zehar bi txanda izan ohi dituzte bakoitza bost bat hilabetekoa: lehenengoa irailetik urtarrilera bitartekoa, eta bigarrena berriz, irailetik ekainera bitartekoa.

Irakasleek, baldintza batzuk bete behar izaten dituzte liberatuak izateko. Baldintza horien arabera Hezkuntza Sailaren esku geldituko da nor noiz liberatu.



Baldintza horiek, hala ere, ez dira berdin-berdinak ikastetxe pribatuetako irakasleentzat, herri-ikastetxeetakoentzat, edota Hezkuntza Berezikoentzat. Diferentziak egon ohi dira txanda-kopuruari edota liberatuen kupoari dagokienez. Edozein modutan ere, irizpide horiek urtetik urtera aldatu egin ohi dira Hezkuntza Sailak sindikatu eta patronalekin osatzen dituen Batzordeetan, eztabaidatu eta adostu ondoren.

1997ko otsail-ekaineko txandan, adibide gisa, 1155 irakasle ari dira liberatuta IRALEko ikasturetara, lurralde, sare eta irakasmaila desberdinetakoak.

IRALE Liberatuak (Otsaila/Ekaina)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	E.A.E.	
HERRI-IKASTETXEAK	Irakasleak				
	Lehen				
	Hezkuntza	53	183	66	302
	Irakasleak				
	Bigarren				
	Hezkuntza	77	303	212	592
	R.ikastaroak	6	28	14	48
	Beste	11	14	9	34
SARE PRIBATUA	GUZTIRA	147	527	302	976
		37	80	62	179
	GUZTIRA	184	605	364	1155



1.115 liberazio hauek ordezkotza-kostua dute. Horietatik aparte badaude, une honetan, sustituziorik gabeko beste 8 ikastetari: 1 Bizkaian eta 7 Gipuzkoan (azken hauetariko 3 Iparraldekoak).

IRALE programa bilakatu da, esan bezala, irakaskuntza-sistemaren euskalduntze-tresna nagusia. Ikus dezagun urtez urteko ikasketari-kopuruaren bilakaera.

Ikastaroa	Taldea	Plazak	Irakasleak
1981-82	22	85	157
1982-83	27	158	232
1983-84	33	212	307
1984-85	42	261	358
1985-86	50	396	591
1986-87	54	408	604
1987-88	54	415	610
1988-89	54	468	730
1989-90	54	468	679
1990-91	54	521	825
1991-92	54	759	1061
1992-93	54	780	1120
1993-94	70	787	1138
1994-95	86	848	1011
1995-96	86	992/1065	1106
1996-97	84	1160	1220+



Nabarmen handitu da IRALEko lanorduetako ikastaroetako ikasketari-kopurua azken urteetan, 1991ean eta 1994-95ean bereziki. Dena den, eta gero eta txanda gehiago eskainiz ere, HEa lortzen duten irakasleen zenbatekoak ez darama proportzio berdina. Horrek, noski, irakasleen euskalduntzearen kostua areagotu egiten du. Ondorioz, pentsatzekoa da bere mugak jotzen hasia dela irakasleen euskalduntze-programa.



GAUR EGUNEKO KEZKAK ETA ETORKIZUNEN ARAZOAK

14.- Irakastereduen etorkizuna

Honako hau litzateke galdera: zenbat euskara ikasten dute ikasleek beren eskolaldian? Edota, bestela esanda, lortzen al du eskolak euskal ikasleak taju-antzean euskalduntzea?

Lege-agindua, gogoan dugunez, oso-oso zehatza izan gabe ere ez da txantxetako: derrigorrezko irakaskuntza-aldia amaitzerakoan (14 urterekin, beraz, orain arte; 16rekin, oster, hemendik aurrera; errepara dezaiozun urte biko luzapen horri) bi hizkuntzak modu praktikoan "nahikotasunez" jakin beharko ditu ikasle orok, zein nahi dela bere ama-hizkuntza eta edozein irakasteredutan ikasi badu ere.

Gai honetan behin-eta-betiko epairik ematerik ez badago ere, orain arteko azterketek eta irakas-sistemaren baitako txostenek argi dezaigukete auzia.

Gaztelania-mailari buruz, lehenengo eta behin, ez dago asko esateko. Ez da inon agertzen, modu ziu-samarrean, inongo gaztelania-hutsunerik; ez behintzat hutsune iraunkor-larririk. Gerta daiteke, gertatu, a) etxean euskara hutsa ikasi duen ikaslerik; b) herrian edo auzoan, lagunartean eta inguru osoan, euskara besterik entzun eta hitz egin ez duenik; c) D ereduan eskolatu denik; d) gaztelania-eskolak gutxi





eta gaizki izan dituenik; baldintza horiek guztiak batera eta eskolaldi guztian zehar gertatu zaizkion ikaslerik baldin bada, eta ez da ezinezko izatea, ikasle horrek gaztelania-maila eskasa izango du. Ez da, ahatik, gertaeraza ez eta usu gertatua.

Euskara-mailari gagozkiolarik, aitzitik, besterik eta bestela gerta daiteke. Lehenik eta behin esan behar da, euskara-maila oso desberdinekin iristen direla haurrak eskola txikira (haur-hezkuntzara, alegia) bi edo hiru urterekin:

- haur euskaldunak, alde batetik, familia eta ingurune zeharo euskaldunetik ala, maizago, neurri batean edo bestean erdaldundutakotik etorri ohi dira. Alde handia dago, horretaz, hasierako euskara-mailetan. Zer esanik ez, euskalki edo herri-hizkera markatuenetik datozenen kasuan: kasu horretan, beharrezko gertatzen da, gainera, metodologia berezia eta egokitua, euskara baturako zubia ongi egiteko.

Derrigorrezko ikasaldiaren buruan, nolanahi ere, B eta, batez ere, D eruedetan ikasten duten haur euskaldunek. euskara-maila egokia lortzen dute, irakurketa-idazketan eta hizkera formal-jantzietan. Harik eta maila hobea, dena den, non eta etxeko eta inguruneko euskara-bizitasuna handiagoa den, etxetik euskara hobeto menderatzen duen edota euskarazko harreman-sare trinkoagoa duen.





Haur erdaldunei bagagozkie, berriz, oso bestela gertatzen da: A ereduan ikasten dutenek, apenas salbuespenik gabe, oso maila apala iristen dute ulermen mailan eta apalagoa produkzioan. Ikasle horiek ez dute iristen, ez eta hurrik eman ere, Legeak finkatzen duen "nahikotasun" maila.

B eta D ereduetan ikasten duten haur erdaldunek, beren aldetik, gero eta euskara-maila hobea lortzen dute eredia "trinkoagoa" denean, hots, euskaraz ordu eta ekintza gehiago dituztenean. Horrela, D eta B "trinko"ko ikasle erdaldunek ikasle euskaldunen antz-antzeko maila lortzen dute eskola-euskaraz, hau da, eskolan erabiltzen den euskara formal-jantzian. Badirudi edonola ere, datu gutxi dagoen arren, ez dutela haien maila iristen hizkera ez-formal, lagunarteko nahiz herriko forman.

B eredu "biguna"ren kasuan, eta aldaerak muga ezinekoak dira ikastetxetik ikastetxera "biguntasun" horretan, euskara-maila desberdinak ematen ditu beste faktore batzuen arabera baina, orohar, esan daiteke ereduotan ikasitako ikasle erdaldunek euskara-maila apalagoa dutela euskaldunek baino eta produkzio mailan erakusten dutela mentsik handiena: interferentziak fonologia, lexiko eta joskeran, hitz-jario mugatua, esaldi konplexuetarako zailtasuna, ea.

Beraz, euskal irakaskuntzaren urteotako hedapenaren parean hutsune garrantzitsu hauek ere kontutan hartu beharrean gaude. Nire ustez, honako irizpideekin jokatu beharko luke Hezkuntza Sailak datozen urteetan euskal herritar guztiek euskara jakiteko duten eskubidea ziurtatze aldera:





- a) Hiru irakastereduek mantendu, Euskara Legeak finkatutako irizpide direnez eta Lege horrek duen topagune eta adostasun-puntu izaeragatik. Halabaina, benetan euskara ikasteko tresna bilatzeko neurriak hartu beharra dago, hizkuntza-egoera desberdinetarako irakas-tratamendu berezitu izan daitezzen.
- b) A ereduak bere egitekoa bete dezan beharrezkoak ditu zenbait hobekuntza: ikasleen motibazioa lantzea eta euskaraganako atxekimendua sustatzea, lehen-lehenik; metodologia franko hobetu daioteke A ereduan, euskara hizkuntza bizi bezala irakasteko, gramatikakeri-etatik urrun; A ereduko euskarazko irakasle askotan saiatuak pretaberritzea; eta, Elebitasun-Dekretuak aurreikusten duen bezala, euskarazko irakasgaiak arian-arian ugaltzea.
- c) B irakastereduan irakasle euskaldunak (HE2-dunak, alegia) ugaltzea beharrezko gertatzen da, beren prestakuntza areagotzearekin batera. Horrekin batera, herri-auzo-lagunarteko ingurune-arekiko eta eskola-inguruko ekintzetan ahalegin berezia egin beharko litzateke, eskolako, familiako eta tokiko erakundeetako indarrak elkartuz eta bilbatuz. Berdintsu, noski, D ereduari buruz ere.
- d) Derrigorrezko irakasaldiaz esandakoaz gain, mereziko luke Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzako irakastereduez gogoeta egitea. Izan ere, DBH amaitzen duten ikasleek euskara eta gaztelania menderatu dezaten uean, edo menderatzen duten neurrian, eta hirugarren hizkuntza baten ezaguera nahikoa lortzeaz bat, interesgarri litzatekeela uste dut irakastereduek birformulatu eta irakaskuntza eleanitzerako urratsak ematen hastea, hizkuntza bakarreko irakaskuntza gaingidituz.





Denetarako baliabiderik balego, denak batera egiterik izango litzateke; ez dago, ordea, denetarako eta bat-batean behar adina eskuarte, eta irakasle euskaldunak dira, gehien bat, mugabaldintza nagusia. Aukera egin behar, beraz: baka ala bestea edo, hobe esan, bata bestearen aurretik.

15.- Ikasle euskaldun(du)en eragina euskararen gizarte-normalizazioan.

Haur eta gazte hainbatek euskarazko irakaskuntza jaso duen eta jasotzen duen honetan, euskarak gizartean duen pisu eskasa ekarri behar da gogora. Eskolak urte luzeetan egindako euskalduntze ahaleginak ez du behar bezalako segidarik gizartean: ez lan muduan, ez kulturean, ez kalean. Ditugun baliabideak (euskal komunikabideak, errotulazioa...) uharte txikiak dira erdal itsasoan. Euskaraz jakitea lehen baino hobeki ikusia eta komenigarriagoa bada ere, askoz probetxugarriago gertatzen da erdara erabiltzea. Gizartearen eragin erdalzalea nabarmen-nabarmena da eskolan, gaztelaniak euskara baztertua bait du zenbait alor garrantzizkotan, ikasleen arteko harremanetan bereziki, eta hori belaunaldi berrion bihar-etziarako hizkuntz portaeraren seinale izan daiteke. Lagunarteko erlazioan erdarak aukera gehiago ematen du: txisteak kontatzerakoan, bromak inprobisatzean, moda-modako hitzak erabili nahi direnean, esamoldeetara jo behar denean, talde-hizkera berezietan murgiltzeko... Erdarak eskaintzen dizkigun baliabide horiei uko egitea zail egiten zaigu denoi, gazteari partilukarzkia, hainbat eta hainbat ingurune eta egoeratan integratuago sentitzeko aukera ematen bait digute.





Euskara bigarren hizkuntza duten ikasleen artean nabarmenago gertatzen da euskararen ahulezia, maizenik erdal ingurunean bizi bait dira gainera. Euskaldun pasibo bezala jokatzekoa da usuenik: ulermena (bai entzutezkoa, bai irakurritikoa) garatua dute, baina hizketa erdaraz bideratzen dute nagusiki. Hori ez da, berez, hain harritzekoa; munduan zehar gauza beretsuak egiaztatu ahal izan dira beste hezkuntz esperientzia elebidunetan ere.

Are kezkarriagoa da fenomeno hau etxetiko euskaldunen artean ere aspaldi samarretik azaltzen hasi izana. Merezi luke fenomeno soziolinguistiko honen arrazioiak aztertzea. Esate baterako, zenbait ikasleek duen erdararako joerak oihartzun izugarria du bere ekola-lagunen artean. Urteetako ohiturak alda daitezke horrela ikasturte soil batean, irakasleen ohar etsituen aurrean. Problema latza da: teoriak onak diren eskola-baldintzetan, etorkizuneko gizon-emakume euskaldunen arteko harremanak erdaraz erakitzen ari dira maiz. Belaunaldi gazteek, euskaraz ikasi eta eskolatuak izan arren, ez dute, hainbat eskualdetan behinik behin, euskal gizarterik osatuko. Hori gertatzen ari da dagoeneko hainbat lekutan: euskaraz eskolatutako neska-mutilak hasiak dira eskolatik irten eta gizarteratzen, baina herri horietako kaleetan ez da euskaldungoaren indartze nabarmenik somatzen; zaharrak eta haurrak bakarrik sentitzen dira gustora euskaraz, baina gizarteraren gune aktiboek gaztelaniaz segitzen dute jo eta ke, tartean txikitako eta ez hain txikitako euskarari uko egin dioten gazte euskaldun horiek direla.

Jokabide sozial hauei soluzioak bilatzea ez da agian eskolaren erantzukizuna, ez nagusiki eskolarena behintzat, baina handik eta hemendik konponbideak bilatu eta garatu beharra dagoela ez da dudarik. Kinka larri honetan bada arazoari aurre egiten saiatzen den jenderik eta eskolarik, batzuk baldintza txar





rrenetan gainera; motibazio-bide berriak asmatzen dira; eskolaz kanpoko ekintzak moldatzen, barnetegiak antolatzen,... dena ardatz bakarraren inguruan: euskara ikasleen arteko ohiko (ohiturazko) hizkuntza bihurtzea. Euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak eta jokamoldeak bultzatzea helburu ahaztezina da euskal eskolarentzat.

16.- Irakaslego euskaldunaren beharrizana

Irakasle-jendea izan da, ikusi dugun bezala, EAEko hezkuntza-sistemaren euskalduntzearen oinarri eta faktore garrantzitsuena. Nor bere kabuz ala IRALERen bitartez, urteak dira gero eta irakasle-kopuru handiagoak HE2 lortzen ari direla, B eta D ereduaren hazkundera sortutako beharrari erantzuteko. Baina, gainera, ez dira horretara mugatzen gure irakaskuntzaren aldaketa-faktoreak:

- urtean 15 bat mila ikasle berri eskolatzen du gure irakas-sistemak baina 30 bat mila ikaslek uzten dute urtero, eta 8-10 urtetan zehar mantenduko da oraindik desoreka hori (gero eta txikiagoa izango de arren aldea urterik urte)
- D ereduak dira gainera, proportzio handi batean, urterik urte ikasle berri horiek. (Ikus taulak)



- LOGSEren ezarpenarekin lotutako zenbait faktorek ere eragin zuzena du, B eta D irakastere-
duen gorakada etengabeaz gain, euskarazko irakaskuntzaren eskariarengan, bereziki Derrigorrezko
ikasaldia 16 urtera arte luzatu izana eta, ondorioz, B eredia bi urtez gehiago eskaini beharra.
Batxilergoa lau adarretan ezarri beharrak eta Heziketa-zikloak ugaltzeak ere hainbat eta hainbat
espezializaziotan zatikatutako irakaslego euskalduna izatera behartzen gaitu.

Horren guztiorren ondorioz, irakasle-plantilak eta irakasle beharrak ez datoz bat inondik inora datozen
5-10 urteetan. HUIS azterketa bat bideratzen ari da, bertako irakasle-jendearen plangintza egin ahal iza-
teko; dena den, lehen datu gordinak honako hauek dira:

IRAKASLEAK	Zenbait daude		1998an behar	2003an behar
HE0	37%	=100	1,78	0,8
HE1	8,5%	=100	446	254
HE2	54,5%	=100	97	98
GUZTIRA	100%	=100	91	75





Ikus daitekeenez, eta gainerako faktoreak konstante mantenduz (publiko-pribatu proportzioa, irakasle/gela ratioa, irakas-karga bera eta espezialitateak, irakasmilak eta lurraldeak kontutan izan gabe) ia erabat desagertzen da irakasle erdaldunen (HE0dunen) beharra; HE1dunak, beren aldetik, beharrizan handia izango dute 2 urtean (gaur egun baino lau t'erdi aldiz gehiago beharko dira), hurrengo bost urteetan berriz gutxitzeko (oraingoak baino bi aldiz eta erditan geratzeko); azkenik, HE2dunak, gaur diren bestetsu beharko dira datozen urteetan ere.

Esan gabe doz, baina, irakas-sistemaren euskaduntzea, hedatu ez ezik sakondu ere nahi bada, HE2 dun irakasleak ugaltu egin beharko lirakekeela.

HUIS, esan bezala, datubilketan eta aztaketan ari da, zerbait neurri proposatu, irakaslegoaren ordezkariekin adostu eta euskalduntzea etorkizunean ere indartzeko.

